

Asilo eskaeren epeak laburtu nahi ditu Parisko gobernuak, eta atxilotze denborak luzatu

Gerard Collomb Barne ministroak lege proposamen bat aurkeztu du; apirilean iritsiko da Asanblea Nazionalean. Estatu Kontseiluak ez du beharrezkotzat hartu

Eneko Etxegarai Urain · Berria 22-02-2018

Migrazioak eta asilo eskaerak arautzeko lege proposamen bat aurkeztu zuen atzo Gerard Collomb Frantziako Barne ministroak. Ministro kontseiluan azaldu zuen 38 neurriko proposamen hori, eta apirilean eztabaidatuko dute Frantziako Asanblea Nazionalean. Martxan alderdiaren gehiengo osatzen duten diputatu batzuek azaleratu dute desadostasunak dituztela proposamenarekin, eta migratzaileen harreran lan egiten duten elkarteak aurka agertu dira. Horrez gain, Frantziako Estatu Kontseiluak ohartarazi du ez dela behar immigrazioa arautzeko lege berririk. Gobernuak argitzeko funtzioa du kontseilu horrek. Legeari egin moldaketen bilanik egin gabe dator araudia aldatzeko proposamena. Areago, Le Monde egunkariak jakinarazi du estatu kontseiluak kritikatu egin duela proposamena: «Gerard Collomben lege proiektua, goizegi etortzeaz gain, ez da estrategia publiko argi baten isla, ez ditu erronkak zehatz definitzen». Helburu orokor bat du proposamenak: epealdi administratibo guztiak laburtzea.

ASILO ESKAERA Asilo eskariak bideratzeko epeak laburtu nahi dituzte: hamalau hilabetetik sei hilabetera. Horren inguruan bada adostasuna, baina asiloa eskuratzeko irizpideek eztabaida piztu dute. Hainbat gizarte eragilek ohartarazi dute epeen laburtzeak oztopatuko dituela eskaera egiten duenari eskubideak aitorrarazteko desmartzak.

Iheslariak eta Aberrigabeak Babesteko Frantziako Bulegoak 114 eguneko epea du eskariak bideratzeko, hau da, lau hilabete baino gutxiago. Laburtu egin nahi dute epea: 2018 bukaeran, bi hilabetera pasatu nahi dute epea. Erakunde horren erabaki bati helegitea jarri gero, orduan Asilo Eskubidearen Epaitegi Nazionaleak du ebazteko ardura, eta bost"sei hilabete behar izaten ditu erabakia emateko. Uste dute epe horiek murriztea zailagoa izango dela.

Migratzaileek asiloa eskatzeko epea ere laburtu nahi du Frantziako Gobernuak: 120 egun dira, eta 90 izatea nahi du. Helegiteak jartzeko epea ere murriztuko lukete: hilabete ez baizik hamabost egun. Horrek defentsa eskubidea urratzen duela salatu du migratzaileen eskubideen aldeko Elena abokatu elkarteak.

Asilo eskaerak ezezkua jasotzen badu, ezingo da gehiago eskatu gaixorik dagoen atzerritarraren titulua, non eta «baldintza berriak» ez diren sortzen. Gaur egun, urtebeterako egonaldi titulua eskuratu dezakete gaixorik dagoen atzerritarraren titulua eskatzen dutenek.

ATXILOTZE DENBORALDIA Migratzaileak atxiloteta administratiboan edukitzeko epeak, berriz, luzatu egin nahi dituzte. Hainbat filtrazio izan dira gai horri dagokionez. Adibidez, urtarilean zabaldu zuten gehienezko atxilotze epea 45 egunetik 135 egunera luzatu nahi zuela gobernuak. Azkenean, 90 egunean jartzea proposatu du; gaur egungo gehienezko epea halako bi da hori. Cimade migratzaileei laguntzeko taldearen arabera, kanporatze agindua duten migratzaileek batez beste hamabi egun ematen dituzte atxikitze zentroetan.

ATXILOALDIA Etorrinen atxiloaldia hamasei ordutik 24 ordura emendatzea proposatu du Barne ministroak. Lege proposamenak dioenez, egonaldi eskubidea ziurtatu nahi dute horren bidez, eta ikerketa boterea indartu. Legez kanpoko egonaldia ez da delitu gehiago, baina gizarte eragile ugari kezka dute atxiloaldia luzatzeko proposamenarekin migratzaileentzako atxiloaldi bat sor daitekeela.

MUGA"ZEHARKATZE DELITUA Beste delitu bat sortzea proposatu du Frantziako Gobernuak: muga zeharkatzearen delitua. Alegia, zigortu egin nahi dute Frantziako mugak ezarritako pasabide batetik igarotzen ez dituenak. Urtebeteko kartzela zigorra izango luke, eta 3.750 euroko isuna. Neurri hori hertsiki lotua dago Frantziak 2015eko azaroan ezarritako larrialdi egoerari; mugetan kontrolak jartzeko erabakia hartu zuen.

PAPERIK GABEAK Identifikazio paperik ez duten migratzaileen kontra ere egin nahi du Collombe ministroak lege berriarekin: euren ez den nortasun agiri bat erabiliz gero, bost urtera arteko espetxealdia jasotzea migratzaileek, eta 75.000 euroko isuna. Haren erranetan, «lurraldean geratzeko»

egiten dute migratzaileek hori gehienetan, «eta lan egiteko».

"HAUTAZKO IMMIGRAZIOA" Frantziara «hautuz» etorri diren migratzaileei dagokienez, erraztasunak jarri nahi dituzte: «lan bila» edo «enpresa bat sortzen» ari direla ziurtatzen duten kartak eskuratu ahalko dituzte migratzaile horiek. Hautazko immigrazioa esan diote. Atzerritar ikasleen estatusa aldatzeko erraztasunak izango dira. «Gure dinamismo ekonomiko, linguistiko eta kulturean parte hartzen dutenentzat handitu nahi dugu Frantziaren erakargarritasuna».

KARTA BERRI BAT Lau urtez balio izango duen egonaldi karta bat sortzea proposatu dute lege proiektuan. Aberrigabeen eta babes osagarritzkoen eskaerei erantzun gisa.

[Fuente/Iturria](#)